

Mondragon Unibertsitatea eta Ingeteam-ek ikerketa zientifiko teknologikoa lantzeko gela bat sortu dute Garaiako campusean

2008/11/26

Unibertsitateak eta industria-taldeak Potentzia- elektronikoa eta Elektroteknika arloetan zentratuko dira. Arlo hau bien interesekoa da eta sortzen dituzten emaitzak hainbat eremutan aplikatu ahal izango dira: sareak, industria, trakzioa edo eguzki energia besteak beste.

Ikerketa eta garapena garatzeko elkarlaneko eredu baten alde egiten dute.

"Ingeteam gela" deituko den horretan ikerketa zientifikoak edota garapen teknologikoko programak eta proiektuak gauzatzeaz gain, doktoretza-tesiak, karrera amaierako proiektuak, azterlanak, ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak eta horrelakoak ere garatuko dira.

